3. Ikuskaritza eginkizunak betetzen dituzten pertsonei «agintaritza agente» izaera aitortuko zaie, eta haiek egiaztatutako gertaerak eta dagokion aktan adierazitakoak egiazkotzat hartuko dira, froga ondorioetarako; dagokien moduan identifika daitezen eskatu ahal izango die erabiltzaileak aurretik.

4. Hondakinen erabiltzaileak, sortzaileak eta edukitzaileak behartuta daude dagokien aktetan adierazitakoa betetzera, aurkako frogarik izan ezean, zeina izango baita haien kontura.

para poderse acoger a la recogida y transporte por el servicio público, al hallarse excluidas las actividades industriales de fabricación y producción del concepto de residuos urbanos.

10. Las responsables municipales, o de la Administración competente, en el ejercicio de sus competencias para el tratamiento o eliminación de residuos, podrán rechazar la recepción de aquellos materiales que no cumplan, por su naturaleza o forma de presentación, las exigencias que se hubieran establecido respecto a su recepción.

11. La utilización de las instalaciones municipales, o de la Entidad local competente, para el tratamiento o eliminación de residuos se hará de acuerdo con las normas de régimen interno que en cada caso se establezcan, tras su aprobación reglamentaria.

*Artículo 9. Exención de responsabilidades para las y los usuarios del servicio en la entrega de residuos.*

Las y los usuarios, productores o poseedores de residuos quedarán exentos de responsabilidad por los daños y perjuicios que pudieran causar los mismos, siempre que en su entrega se haya cumplido con exactitud lo dispuesto en la presente Ordenanza y en las demás normas aplicables al caso.

*Artículo 10. Exención de responsabilidades para el Ayuntamiento en la entrega no reglamentaria de residuos.*

1. El Ayuntamiento, o la entidad local competente, quedará exento de responsabilidad por los daños y perjuicios que pudieran causar los residuos urbanos en el caso de que en su entrega no se hayan observado las especificaciones recogidas en la presente Ordenanza, en las demás normas aplicables y en las que en cada caso se indiquen expresamente a sus usuarios, poseedores o productores.

2. La responsabilidad por daños y perjuicios que pudieran ocasionarse como consecuencia de alguna de las exclusiones indicadas en el artículo 8 de esta Ordenanza será exclusivamente propia del productor o poseedor de los residuos.

*Artículo 11. Inspección y vigilancia.*

1. El Ayuntamiento tendrá la potestad de inspección, pudiendo dar instrucciones e imponer cualquier cambio o alteración en materia de entrega de residuos, siendo su cumplimiento obligado para los y las usuarias.

2. Las y los usuarios, productores o poseedores de residuos están obligados a prestar la máxima colaboración posible a la autoridad municipal o, en su caso, a la entidad local competente, permitiendo realizar todos los exámenes, inspecciones, controles, toma de muestras y recogida de información, así como cualquier otra actuación u operación necesaria que se estime necesaria para el cumplimiento de sus competencias. El ejercicio de las funciones de inspección y vigilancia del cumplimiento de lo dispuesto en la presente Ordenanza corresponderá al personal adscrito al Área competente en materia de residuos que tenga atribuidas dichas funciones, así como a los agentes de la Policía Municipal, quienes estarán facultados para controlar las actividades reguladas en esta Ordenanza.

3. Las personas que realicen las labores de inspección tendrán el carácter de «agentes de la autoridad», y los hechos constatados por aquéllas y formalizados en la correspondiente acta gozarán de presunción de certeza a efectos probatorios, pudiendo la persona usuaria solicitar la identificación previa pertinente a las mismas.

4. Las y los usuarios, productores y poseedores de residuos deberán estar a lo que se recoja en las correspondientes actas, salvo prueba en contrario, que será de su exclusivo cargo.

EK\CV GAO-I-2015-05031

VI. KAPITULUA. ZERGA ARAUBIDEA

*12. artikulua. Udal tasak.*

1. Hondakinen erabiltzaile, sortzaile eta edukitzaileek hondakinei atxikitako kudeaketa gastuak ordaintzeko betebeharra dute.

2. Horretarako, hiri hondakinak biltzeko zerbitzuak emateari dagozkion tasak ezarriko ditu Udalak urtero, eta hondakinen erabiltzaile, sortzaile eta edukitzaileek tasa horiek ordaindu beharko dituzte, dagokion zerga Ordenantzan ezarritakoaren arabera.

3. Zerga araubide horretan sartuko da «hondakin sortzaile handia» irudia edo kategoria, eta araubide edo trataera berezia eta bereizia izango du.

V. KAPITULUA. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

1. ATALA. Udalaren betebeharrak

*13. artikulua. Zerbitzua ematea.*

1. Hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak ezarritakoaren arabera, Donostiako Udalak eskumena du udalerrian sortu eta utzitako hiri hondakinak kudeatzeko, Ordenantza honetan ezartzen den eran, aipaturiko legeak nahiz lege hori aldatu edo garatzen duen Estatuko beste edozein legek ezarritako araudiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoak bere eskumen esparruan ezarritako araudien barruan.

2. Udalak edo hark eskuordetzen duen erakundeak nahitaez eman behar du etxeko hondakinak biltzeko zerbitzua, Ordenantza honetako 14. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

3. Zerbitzu horrek honako lan hauek hartzen ditu bere baitan:

— Bilketa; hau da, hondakinak utzi edo metatu diren gunetik jaso, bilketarako ibilgailuetara eraman eta haietan sartzea.

— Edukiontziak mugitzea eta, hustutakoan, berriro jatorrizko bilketa guneetara eramatea, hala badagokio.

— Lan horien ondorioz bide publikoan utzitako hondakin hondarrak garbitu eta kentzea.

— Hondakinak transferentzia edo tratamendu plantetara eramatea eta han uztea.

— Hiri hondakinak baliagarri egitea eta deuseztatzea.

— Edukiontziak garbitzea.

4. Pertsona fisiko edo juridikoek debekatuta daukate hondakinak biltzea; bilketa hori egiteko baimena duen bakarra Donostiako Udalaren zerbitzua da, edo beste toki erakunde baten zerbitzua, baldin eta aldez aurretik Udalak horretarako eskumenak eskuordetu badizkio. Horretan salbuespen bakarra Ordenantza honetako 8. artikuluko hirugarren paragrafoan aurreikusitako araubidea da.

5. Ordenantza honetako IV. eta V. tituluetan ezarritako araubideari jarraituz emango da zerbitzu publikoa. Erakunde publikoek edo haiek kontratatutako enpresek hondakinak biltzeko ordutegi jakin bat beharko dute; dagozkien ebazpenetan edo kontrataziorako baldintza orrietan zehaztuko dira ordutegiak, zarata edo bibrazioengatiko kutsadura akustikoaz udal arauek xedatzen dutenarekin bat etorrita.

CAPÍTULO IV. RÉGIMEN FISCAL

*Artículo 12. Tasas municipales.*

1. Las y los usuarios, productores y poseedores de residuos están obligados a sufragar los gastos de gestión que representen los mismos.

2. En atención a ello, el Ayuntamiento establecerá anualmente las tasas correspondientes por la prestación de los diferentes servicios de recogida de residuos urbanos, debiendo las personas usuarias, productoras y poseedoras de residuos proceder al pago de tales tasas de acuerdo con lo que establezca la Ordenanza Fiscal correspondiente.

3. En dicho régimen fiscal se incluirá la figura o categoría especial del «Gran Productor de Residuos», que tendrá un régimen o tratamiento propio y diferenciado.

CAPÍTULO V. DERECHOS Y DEBERES

SECCIÓN 1.ª Deberes del Ayuntamiento

*Artículo 13. Prestación del servicio.*

1. De conformidad con lo establecido en la Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados, el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián es competente para la gestión de los residuos urbanos generados y depositados en el municipio, en la forma que se establece en esta Ordenanza, dentro del marco de la regulación establecida en la citada Ley, u otra legislación del Estado que la modifique o desarrolle; y en la que pueda dictar en su respectivo ámbito de competencias la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2. El servicio de recogida de residuos domiciliarios es de prestación obligatoria por parte del Ayuntamiento o de la entidad en que se delegue, de conformidad con lo previsto en el artículo 14 de la presente Ordenanza.

3. La prestación de este servicio comprende las siguientes operaciones:

— Recogida, consistente en el traslado de los residuos desde los puntos de depósito o acumulación hasta los vehículos de recogida, y la introducción de los mismos en dichos vehículos.

— Desplazamiento y devolución, si procede, de los elementos de contención una vez vaciados a los puntos originarios de recogida.

— Limpieza y retirada de los restos de los residuos vertidos en la vía pública a consecuencia de estas operaciones.

— Transporte y descarga de los residuos en las plantas de transferencia o de tratamiento.

— Valorización y eliminación de los residuos urbanos.

— Limpieza de los contenedores.

4. Se prohíbe que cualquier otra persona física o jurídica realice operaciones de recogida de residuos, ya que únicamente está facultado para realizar tal recogida el servicio municipal del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, o los servicios de otra Entidad Local previamente autorizados mediante la correspondiente transferencia de las competencias por el Ayuntamiento, estableciéndose como única excepción a ello el régimen previsto en el párrafo tercero del artículo 8 de esta Ordenanza.

5. El servicio público se prestará en el municipio según el régimen establecido en los Títulos IV y V de esta Ordenanza, y dentro de un horario para la prestación del servicio por las entidades públicas, o empresas contratadas por las mismas, que se recogerá en las correspondientes resoluciones o en los pliegos de condiciones para su contratación, conforme a la normativa municipal sobre contaminación acústica por transmisión de ruidos y vibraciones.

EK\CV GAO-I-2015-05031

6. Donostiako Udalak edo toki erakunde eskumendunak hiri hondakinak kudeatzeko planak egin ahal izango ditu, betiere indarrean dauden Euskal Autonomia Erkidegoko legeetan edo Estatukoetan xedatutakoa aintzat hartuta.

7. Udal zerbitzuek edo toki erakunde eskumendunak zerbitzua zer baldintza eta modalitatetan emango den jakinaraziko diete herritarrei, Ordenantza honetan aurreikusitako edozein bide erabiliz jakinarazpen horretarako.

*14. artikulua. Zerbitzua emateko ardura duen entitatea.*

1. Udalak, aurreko atalean adierazitako hiri hondakinen kudeaketa lanak egiteko, dagozkion eskumenak erabili ahal izango ditu, edo eskumen horiek beste toki erakunde bati eskuordetu, gaur egun San Markos Mankomunitatearekin egiten duen bezala; hala, Ordenantza honen testuan Udalari buruz adierazitako guztiak kasu bakoitzean eskumena duen toki erakundeari egokituko zaizkio.

2. Hondakinak kudeatzeko eskumen horiek Udalak berak erabiltzekotan, udal zerbitzuen bidez gauzatu ahal izango dira eskumenak, zuzenean, edo kontratu publikoei eta toki araubideari buruzko legediak aurreikusten duen beste edozein kudeaketa moduren bidez, hala nola enpresa batekin zerbitzua emateko kontratazio administrazioa eginez. Bi bide horietatik edozein hartzen dela ere, horrek ez du inolako eraginik izango Ordenantza honek barne hartzen dituen udaleko biztanle diren pertsona fisikoei, entitate publiko edo pribatuei eta enpresei araudi honetan ezartzen zaizkien betebeharretan.

*15. artikulua. Zerbitzua emateari buruzko salbuespenak.*

1. Hondakinak biltzeko udal zerbitzua egunero emango da Donostian, urteko gau guztietan; horretan salbuespena izango dira abenduaren 24a eta 25a (Gabonak) eta abenduaren 31 eta urtarrilaren 1a (Urte Berri).

2. Larrialdiko edo halabeharrezko irizten zaien egoeretan ohiko bilketa zerbitzua ematerik ez baldin badago, eta Udalak edo toki erakunde eskumendunak hala dela behar bezala egiaztatu, adierazi eta jakinarazi ondoren, aldi baterako bertan behera utzi ahal izango da zerbitzua. Hala gertatuz gero, erabiltzaileek ezingo dute hondakinik utzi zerbitzua erabat normalizatu arte, edo erakunde publiko horiek horretarako jarraibideak eman arte.

3. Nolanahi ere, hondakinen kudeaketaren gaineko eskumena duen agintaritzak horri buruz ematen dituen agindu guztiak onartu eta bete behar dituzte erabiltzaileek.

4. Erabiltzaileek ikusiz gero edukiontzia beteta dagoela, ez dute inolako hondakinik utzi behar ez edukiontzian ez bide publikoan.

5. Artikulu honetako lehen, bigarren eta laugarren paragrafoetan adierazitako egoerek erabiltzaileei kalte edo galeraren bat sortuz gero, inola ere ez die ekarriko Ordenantza honetako 12. artikuluan aurreikusitako tasak murrizteko eskubiderik, ezta kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik ere.

*16. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzaileen eskubideak.*

Udalak hiri hondakinak biltzeko zerbitzua emateko duen betebeharrak erabiltzaileek zerbitzu hori jasotzeko duten eskubidea adierazten du, era berean.

6. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, o la entidad local competente, podrán elaborar planes de gestión de residuos urbanos, de conformidad con lo que esté previsto en la legislación de la Comunidad Autónoma del País Vasco o del Estado, que se encuentre vigente.

7. Los servicios municipales, o la entidad local, competente informarán a la ciudadanía de las condiciones y modalidades de la prestación del servicio, en cualquiera de las modalidades previstas en esta Ordenanza.

*Artículo 14. Entidad responsable de la prestación del servicio.*

1. El Ayuntamiento podrá realizar las actividades citadas en el precepto anterior de gestión de residuos urbanos bien ejercitando directamente esas competencias o bien transfiriendo las mismas a otra entidad local, como es el caso actualmente de la Mancomunidad de San Marcos, por lo que las referencias que en el texto de esta Ordenanza se hacen al Ayuntamiento serán extensivas también a la entidad local competente en su caso.

2. El ejercicio de estas competencias de gestión de residuos por el propio Ayuntamiento puede, a su vez, hacerse efectivo bien directamente por los propios servicios municipales o bien mediante cualquier otra forma de gestión prevista en la legislación sobre contratos públicos y régimen local, como puede ser mediante la contratación administrativa del servicio con una empresa particular, lo que en ningún caso afectará a las obligaciones recogidas en esta normativa para las personas físicas que sean vecinas del municipio, las entidades públicas o privadas y las empresas a las que se dirige la presente Ordenanza.

*Artículo 15. Excepciones a la prestación del servicio.*

1. El servicio municipal de recogida de residuos se prestará a diario todas las noches del año en la ciudad de Donostia-San Sebastián, con la única excepción de las correspondientes a los días 24 al 25 de diciembre (Navidad) y 31 de diciembre al 1 de enero (Año Nuevo).

2. En aquellas situaciones consideradas como de emergencia o de fuerza mayor en las que no sea posible prestar el servicio normal de recogida, y previa constatación, declaración y comunicación por el Ayuntamiento o entidad local competente, se podrá alterar o suspender temporalmente el servicio, debiendo en estos casos las personas usuarias abstenerse de depositar sus residuos hasta el momento en el que se normalice el servicio, o hasta que dichas entidades públicas dicten en cada caso las instrucciones oportunas.

3. Las y los usuarios deberán, en todo caso, acatar y cumplir estrictamente las órdenes e instrucciones que se dicten sobre el particular por la Autoridad competente en materia de la gestión de residuos.

4. Las y los usuarios, ante la presencia de un contenedor lleno, deberán abstenerse de efectuar los depósitos de residuos en ese contenedor concreto o en la vía pública.

5. En ningún caso se generará derecho a la reducción de las tasas previstas en el artículo 12 de esta Ordenanza, ni a indemnización alguna, en el supuesto de originarse algún daño o perjuicio para la persona usuaria por las situaciones expresadas en los párrafos primero, segundo y cuarto del presente artículo.

*Artículo 16. Derechos de las personas usuarias del servicio.*

El deber del Ayuntamiento de prestar el servicio de recogida de residuos urbanos constituye, a su vez, un derecho de cada uno de las personas usuarias a la prestación de dicho servicio.

EK\CV GAO-I-2015-05031

2. ATALA. Erabiltzaileen betebeharrak

*17. artikulua. Hondakinak biltzeko zerbitzua emateko derrigortasuna.*

1. Hondakinak biltzeko zerbitzuak osasun, ingurumen eta beste arlo batzuetarako duen interesa kontuan izanik, erabiltzaile guztientzat nahitaezkoa zerbitzu hori erabiltzea eta jasotzea.

2. Udalerriko kale, plaza, bide publiko edo beste leku batean zerbitzua eskaintze hutsak berarekin dakar horietan kokaturiko etxebizitza, instalazio edo lokalen titular, jabe, akuradun eta erabiltzaileek zerbitzuan dagokien alta egitea, nahitaez.

*18. artikulua. Hondakinak uzteko modua.*

Zerbitzuaren erabiltzaileek Ordenantza honetan bilketa modalitate bakoitzerako ezarritako modu, egun eta ordutegian utzi beharko dituzte hondakinak.

*19. artikulua. Hondakinak utzi edo deuseztearen inguruko debekuak.*

Zerbitzuaren erabiltzaile orok debekatuta izango dute:

1) Ordenantza honetako 40. artikuluan adierazitako poltsak erabili gabe gelditzen diren gainerako hondakinak, adibidez zakar solteak edo ontziratu gabekoak, edukiontzietan zuzenean botatzea, hondakinak birziklatzeko edukiontzietan bota beharrekoak izan ezik.

2) Bide publikoko paperontzietan hondakinak botatzea, baldin eta haien tamaina edo neurriagatik paperontzi horien ahoa estali edo haien edukiera gainditzen badute.

3) Hondakinak edukiontziz aldatzea edo manipulatzea, horretarako ezinbesteko arrazoiren bat ez baldin badute behintzat.

4) Hiriko bide publikoetan kokatutako edukiontziak erabiltzea bide publikoak, berdeguneak, aisialdirako guneak, hondartzak eta gainerako leku publikoak garbitzean sortzen diren hondakinak biltzeko.

5) Bide publikoan aldi baterako jarritako obra edukiontziak erabiltzea hondakinak uzteko.

6) Gai likidoak edo likido bihur daitezkeen edo isur daitezkeen elementuak dituzten hondakinak uztea.

7) Materialak bereizi gabe uztea, itzultzeko ontziak uztea eta gaikako bilketa sistemaren bidez biltzen diren materialak gainerako hondakinekin uztea, toki erakunde eskumendunak aldez aurretik ezarritakoaren arabera eta hondakin mota jakin batzuk birziklatzeko gaikako bilketa zerbitzu orokorra ezartzen den unetik aurrera, Ordenantza honetako II. Tituluan aurreikusitakoarekin bat etorrita. Borondatezkoa izango da materia organiko biodegradagarria gainerako hondakinetatik bereizita uztea; hortaz, ez dago debekatuta materia hori gainerako hondakinetatik ez bereiztea.

8) Hondakinak bertan behera uztea, Ordenantza honetako IV. eta V. tituluetan hondakinak uzteko aurreikusitako ordutegiak, lekuak eta moduak kontuan hartu gabe.

9) Saneamendu sareari zuzenean loturiko hondakin birringailuak erabiltzea.

10) Hondakin solidoak saneamendu sarera zuzenean botatzea.

11) Edukiontzi mota bakoitzean edukiontzi bakoitzerako aurreikusitakoak ez beste hondakin batzuk botatzea.

12) Ordenantza honetan aurreikusitako betebeharrak ez betetzea, oro har.

SECCIÓN 2.ª Deberes de las personas usuarias

*Artículo 17. Obligatoriedad del servicio de recogida de residuos.*

1. Dado el interés sanitario, medioambiental, etc. del servicio de recogida de residuos, se declara obligatorio su uso y recepción para las personas usuarias.

2. El simple hecho de prestarse el servicio en una calle, plaza, camino público, etc, del municipio supondrá el alta preceptiva en el mismo de todas las personas titulares o propietarias, arrendatarias y usuarias de las viviendas, dependencias o locales que en ella estén ubicadas.

*Artículo 18. Forma de efectuar los depósitos.*

Las y los usuarios del servicio deberán efectuar los depósitos en la forma, fechas y horario fijados en la presente Ordenanza, para cada una de las modalidades de recogida establecidas.

*Artículo 19. Prohibiciones en relación a la entrega, depósito o eliminación de residuos.*

Queda prohibido para todas las personas usuarias del servicio:

1) El depósito de cada uno los residuos restantes sin utilizar las bolsas indicadas en el artículo 40 de esta Ordenanza, como vertidos sueltos o a granel mediante su vaciado directo en los contenedores, con la única excepción de los depósitos previstos en los contenedores para el reciclaje de residuos.

2) El depósito de residuos en las papeleras situadas en la vía pública cuando, por su tamaño o por su magnitud, se obstruya la boca de recepción de las mismas o supongan una ocupación significativa de su capacidad de contenido.

3) El trasvase o manipulación de los residuos, a no ser que se deba a una causa justificada o de fuerza mayor.

4) La utilización de los contenedores situados en la vía pública para la recogida de los residuos generados en las operaciones de limpieza de las vías públicas, zonas verdes, áreas recreativas, playas y demás espacios públicos de la ciudad.

5) La utilización de los contenedores de obras situados temporalmente en la vía pública para el depósito de residuos.

6) El depósito de residuos que contengan sustancias líquidas o elementos susceptibles de licuarse o de producir vertidos.

7) El depósito de materiales de forma no separada, de envases retornables y de aquellos para los que exista un sistema de recogida selectiva junto con los residuos restantes, según se haya dispuesto previamente por la entidad local competente, y a partir del momento en el que se establezca un servicio de recogida selectiva generalizada para el reciclaje de ciertos tipos de residuos, con arreglo a lo que está previsto en el Título II de esta Ordenanza. El depósito separado de la materia orgánica biodegradable será voluntario, de modo que no se prohíbe su deposito en forma no separada.

8) El abandono de residuos, con incumplimiento del deber de las personas usuarias de depositarlos con arreglo a los horarios establecidos y en los lugares y formas previstos en los Títulos IV y V de esta Ordenanza.

9) La utilización de trituradores de residuos que estén directamente conectados a la red de saneamiento.

10) La evacuación directa de residuos sólidos a la red de saneamiento.

11) La introducción en cada uno de los tipos de contenedores de residuos no previstos para los mismos.

12) La contravención, en general, de cualquiera de las obligaciones previstas en esta Ordenanza.

EK\CV GAO-I-2015-05031

*20. artikulua. Hondakinak uztean sortutako isuria garbitzeko betebeharra.*

Baldin eta hondakinak behar ez bezala uzteagatik bide publikoan isuririk izanez geri, isuria eragiten duen erabiltzailea izango da isuriak sortutako zikinkeriaren erantzule, eta bere gain hartu beharko ditu eragindako esparruak garbitzeko lanak.

*21. artikulua. Hondakinak era egokian edukitzeko betebeharra.*

Hondakinen erabiltzaile, sortzaile edo edukitzaileek higiene eta segurtasun baldintza egokietan eduki behar dituzte hondakinak, hondakin horiek beren esku dauden bitartean, haiek arauz uzteko garaia etorri arte.

*22. artikulua. Hondakinen tratamendurako udal baimena.*

Udalaren aldez aurreko baimena beharko da honako lan hauek egiteko:

1. Etxeko eta merkataritzako hondakin solidoetarako errauskailuak edo gisa horretakoak jartzeko.

2. Aldez aurretik birringailuez, trinkogailuez eta, oro har, dentsitatea handitzeko tresnez tratatutako hondakinak uzteko.

II. TITULUA

GAIKAKO BILKETA

*23. artikulua. Birziklatzen diren elementuek gainerako hondakinen araubideari dagokionez dituzten salbuespenak.*

1. Birziklatzeari begira gaikako bilketa araubidea duten material berreskuragarriak, adibidez papera eta kartoia, beira, plastiko eta metalezko ontziak, brikak, botoi pilak eta ohiko pilak, materia organiko biodegradagarria, arropa eta ehungai erabiliak eta etxeko olio erabilia gainerako hiri hondakin solidoena ez bezalako araubide baten bitartez arautzen dira Ordenantza honetan, eta haren barnean berariazko tratamendua izango du materia organiko biodegradagarriak.

2. Ohiko sistemaren bidez biltzen ez diren material berreskuragarri horiei birziklagarri diren beste hondakin mota batzuk gaineratu ahal izango zaizkie aurrerantzean, Udalak edo toki erakunde eskumendunak hala erabakitzen joan ahala.

*24. artikulua. Hondakinak birziklatzeari begira gaikako bilketa egitea.*

1. 1. Uztailaren 28ko 22/2011 Legean xedatutakoa betez, udalak gaikako bilketa egiteko eskumena izango du bilketa berezituaren sistema erabiliz; horri esker, hondakinetan dauden material baliagarriak eta berrerabilgarriak bereizi ahal izango dira; zehatzago esanda, hartzitu daitezkeen material organikoak eta material birziklagarriak bereizi ahal izango dira, gerora azken hondakin horiek eraldatzeko aukera izanik.

2. Horri dagokionez, hiri hondakin solidoen sailkapenean sartzen diren elementu eta material jakin batzuk berreskuratu, balioetsi, berrerabili eta birziklatzeko, Udalak elementu horiek gaika biltzeko sistema bat ezartzen du papera eta kartoia, beirazko ontziak, plastikozko ontziak, metalezkoak, brikak, botoi pilak eta ohiko pilak, arropa eta ehungaiak eta jateko on diren etxeko olioak bereiziz, eta etorkizunean birziklagarri izango diren beste elementu batzuk ere sar daitezke zerrenda horretan.

3. Era berean, Udalak materia organiko biodegradagarrien gaikako bilketa sistema bat ezarriko du, hiri osoan banatuko

*Artículo 20. Deber de limpieza de los vertidos producidos durante el depósito de residuos.*

Si como consecuencia de una deficiente presentación de los residuos se produjeran vertidos en la vía pública, la persona usuaria causante será responsable de la suciedad ocasionada, debiendo asumir las labores correspondientes de limpieza de los espacios que resulten afectados.

*Artículo 21. Deber de mantenimiento de los residuos.*

Las y los usuarios, productores o poseedores de residuos están obligados a mantener en unas adecuadas condiciones de higiene y seguridad sus residuos propios mientras permanezcan en su poder, asumiendo esta obligación hasta el momento en el que se produzca su entrega reglamentaria.

*Artículo 22. Autorización municipal en el tratamiento de los residuos.*

Será necesaria la previa licencia municipal para:

1. La instalación de incineradores de residuos sólidos de carácter doméstico y comercial, o similares.

2. El depósito de residuos previamente tratados en trituradoras, compactadoras, y en general con maquinaria destinada a aumentar su densidad.

TÍTULO II

RECOGIDA SELECTIVA

*Artículo 23. Excepción de los elementos sometidos a reciclaje con respecto al régimen de los residuos restantes.*

1. Los materiales recuperables sometidos al régimen de recogida selectiva para el reciclaje, como son el papel y el cartón, los envases de vidrio, los envases de plástico, metálicos y brick, las pilas de botón y convencionales, la materia orgánica biodegradable, la ropa y textil usados así como el aceite doméstico, se regularán en la presente Ordenanza con un régimen diferente al del resto de residuos sólidos urbanos, dentro del cual la materia orgánica biodegradable tendrá un tratamiento específico.

2. A estos materiales recuperables, fijados como excepción con respecto a los residuos sometidos a la recogida ordinaria, se podrán añadir en un futuro otros tipos de residuos susceptibles de reciclaje que el Ayuntamiento o la entidad local competente vaya estableciendo progresivamente.

*Artículo 24. Recogida selectiva para el reciclaje de residuos.*

1. En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley 22/2011, de 28 de julio, se establece como competencia municipal la recogida selectiva mediante un sistema de recogida diferenciada que permite la separación de los materiales valorizables y reutilizables contenidos en los residuos, y, más en concreto, la distinción de los materiales orgánicos fermentables y de los materiales reciclables, para la posterior transformación de estos últimos residuos.

2. Para ello, a los efectos de la recuperación, valorización, reutilización o reciclaje de determinados elementos y materiales que se incluyen entre los residuos sólidos urbanos, desde el Ayuntamiento se establece un sistema de recogida de dichos elementos de carácter selectivo para el papel y el cartón, para los envases de vidrio, para los envases de plástico, metálicos y brick, para las pilas de botón y convencionales, para la ropa y los textiles y los aceites domésticos comestibles, estando abierto también este listado a otros elementos que puedan ser reciclables en el futuro.

3. Asimismo el Ayuntamiento establecerá un sistema de recogida selectiva de la materia orgánica biodegradable

EK\CV GAO-I-2015-05031

diren berariazko edukiontzien bitartez. Eduki horien erabilera borondatezkoa izango da herritarrentzat. Eduki horren erabilera saritu egingo da Hondakinak Biltzeko Zerbitzua Emateagatik Tasak arautzeko Zerga Ordenantzak ezartzen duenaren arabera.

4. San Markos Mankomunitatearen bidez, erabiltzaileen eskura jarriko dira, gutxienez, 2 garbigune Donostiako udal barrutiaren barnean, etxeko gainerako hondakin bereziak bertan gaika utzi ahal izateko. Garbiguneen jarduera San Markos Mankomunitateak mugatuko du egoki den arauaren bitartez.

5. Ordenantza honetako 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, arlo honetan hartutako eskumenak gauzatu egingo dira haiek beste toki erakunde batera transferituz, esate baterako, San Markos Mankomunitatearen egungo kasua.

6. Udal zerbitzuek edo toki erakunde eskumenduneko zerbitzuek ezarritako gaikako bilketarako programa bereziak herritar guztiek zorrotz bete beharrekoak dira.

7. Betebehar orokor hori gorabehera, pertsona edo erakunde guztiak haien jardueren barruan programa horiei beharrezko lankidetza eskaintzeaz arduratuko dira, udal argibideek zehazten duten moduan.

8. Udal zerbitzuek, edo toki erakunde eskumendunak, herritarrei jakinaraziko diete zein diren zerbitzu hau emateko baldintzak eta motak.

III. TITULUA

ZERBITZUA EMATEA

I. KAPITULUA. EDUKIONTZI MOTAK ETA GAINERAKO BILKETA ONTZIAK

*25. artikulua. Hondakinak uzteko lekuak.*

Hainbat inguruabarren arabera, esate baterako hondakinen izaera, kokatzen den sektore edo herri bidearen ezaugarriak eta haiek bildu eta garraiatzeko plangintza, Udalak edo toki erakunde eskumendunak hondakin mota bat edo beste edo hondakinak biltzeko beste leku batzuk hautatuko dituzte. Hala, azaleko edukiontziez gainera, hau da, edukiontzi normalduak gehienak, lurpeko edukiontziak hautatuko dira; haiek ikusgai utziko dute buzoi bat, eta bilketa pneumatiko bidezko sistema bat ere erabiliko da, era berean, hondakinak sartzeko buzoiak ikusgai utziko dituena. Salbuespentzat, zatiki batzuen atez ateko bilketa bereziak egingo dira, merkataritzari eta ostalaritzari begira.

Lurpeko edukiontzietan nahiz bilketa pneumatikoan ikusgai dauden edukiontziek eta buzoiek kolore bereizgarri bat izango dute, zein hondakin motatarako diren adierazteko.

Bilketarako edukiontzi edo buzoi motak (lurpeko eta bilketa pneumatikoko edukiontziena) ondorengo artikuluetan araututakoak izango dira.

*26. artikulua. Paper-kartoizko edukiontzi/buzoia. (edukiontzi urdina).*

Edukiontzi edo buzoi urdina etxeetan sortutako paper eta kartoia uzteko erabiliko da; inoiz ez da onartuko merkataritzako establezimenduetan sortutako hondakinak bertan botatzea.

mediante contenedores específicos en todos los barrios de la ciudad. El uso de dichos contenedores será voluntario para la ciudadanía. Se bonificará la utilización de este contenedor de acuerdo con lo que establezca la Ordenanza Fiscal Reguladora de las Tasas por la Prestación del Servicio de Basura.

4. A través de la Mancomunidad de San Marcos se ponen a disposición de las y los usuarios, al menos 2 Garbigunes o puntos limpios en el término municipal de San Sebastián, de cara a facilitar el depósito selectivo del resto de fracciones de residuos especiales del hogar. El funcionamiento de los Garbigunes es el determinado por la Mancomunidad de San Marcos mediante la norma correspondiente.

5. De conformidad con lo establecido en el artículo 14 de esta Ordenanza, el ejercicio de las competencias asumidas en este ámbito se podrá efectuar mediante la transferencia de las mismas a otra entidad local, como es el caso actualmente de la Mancomunidad de San Marcos.

6. Todos los programas concretos de recogida selectiva establecidos por los servicios municipales, o por los de la entidad local competente, deberán ser cumplidos estrictamente por la ciudadanía.

7. Con independencia del cumplimiento de esta obligación general, todas las personas o entidades cuidarán en el ámbito de sus respectivas actuaciones de prestar a tales programas la cooperación necesaria, según se determine en las instrucciones municipales.

8. Los servicios municipales, o la entidad local competente, informarán a la ciudadanía de las condiciones y modalidades de la prestación de este servicio.

TÍTULO III

PRESTACIÓN DEL SERVICIO

CAPÍTULO I. TIPOS DE CONTENEDORES Y DEMÁS RECIPIENTES DE DEPÓSITO

*Artículo 25. Lugares de depósito.*

Dependiendo de diversas circunstancias como pueden ser la naturaleza de los residuos, las características del sector o de la vía pública en la que se ubique y la planificación realizada para su recogida y transporte, el Ayuntamiento o la entidad local competente optarán por un tipo u otro de recipientes o lugares de depósito de los residuos. Así, además de los contenedores de superficie, que son los recipientes normalizados mayoritarios, se optará por contenedores soterrados que dejarán visible un buzón y por un sistema de recogida neumática que dejará, asimismo, visible sus correspondientes buzones para introducir los residuos. Constituirá una excepción la disposición de recogidas especiales a puerta de algunas fracciones para atención de comercio y hostelería.

Los contenedores y los buzones visibles tanto de los contenedores soterrados como de la recogida neumática, tendrán un color o un distintivo de color que indique a que tipos de residuos está destinado.

Los tipos de contenedores o buzones de depósito (de contenedores soterrados y recogida neumática) serán los regulados en los artículos sucesivos.

*Artículo 26. Contenedor/buzón de papel-cartón. (contenedor azul o de distintivo azul).*

El contenedor o buzón de distintivo azul queda reservado para el depósito del papel y del cartón que sean de procedencia exclusivamente domiciliaria, no incluyendo en ningún caso el que se genere en establecimientos comerciales.

EK\CV GAO-I-2015-05031

*27. artikulua. Beirazko edukiontzi/buzoia (edukiontzi berdea).*

Edukiontzi edo buzoi berdea soilik erabiliko da beirazko ontziak uzteko; salbuetsita daude beira laua, adibidez, ispiluak, platerak eta antzekoak.

*28. artikulua. Ontzien edukiontzi/buzoia (edukiontzi horia).*

Edukiontzi edo buzoi horia soilik erabiliko da plastikozko, metalezko ontziak eta brikak uzteko. Salbuesten dira beste elementu batzuk, besteak beste, aerosolak, jostailuak, etxe tresna txikiak, biberoiak, gomazko eskularruak, orraziak, hortzetako eskuilak, eltzeak, zartaginak eta sukaldeko gainerako tresnak, eta, oro har, analogiaz salbuetsi direnen antzekoak diren beste elementu batzuk.

*29. artikulua. Biohondakinen edukiontzi/buzoia (edukiontzi marroia).*

Edukiontzi edo buzoi marroia soilik erabiliko da materia organiko biodegradagarria uzteko, landare edo animalia jatorrikoa izan, sukaldatuta egon edo ez. Edukiontziak itxiak izango dira, eta txipa duen txartel baten edo antzeko mekanismoa duen txartel baten bidez irekiko dira. Guztiak edo horietako batzuk edukiontzi egokituak izango dira.

*30. artikulua. Olio edukiontzia (edukiontzi laranja).*

Jateko onak diren etxeko olio erabiliak uzteko izango da edukiontzi laranja, eta erabiltzaileek ontzi itxietan botako dute olio hori. Ez dira, inola ere bota behar automobilgintzako olioak edo industria jatorrikoak.

*31. artikulua. Arropa edukiontzia (edukiontzi zuria).*

Etxeetatik datozen ehungai, arropa eta oinetako erabiliak uzteko izango da edukiontzi zuria.

*32. artikulua. Pila edukiontzia (edukiontzi txiki horia).*

Neurri txikiko edukiontzi horia soilik erabiliko da botoi pilak eta ohiko pilak uzteko.

*33. artikulua. Gaikako bilketarako erabiltzen ez diren gainerako edukiontziak/buzoiak.*

Ordenantza honetako 56. artikuluak zerbitzua ematetik salbuesten ez dituen gainerako hiri hondakinak hiriko hainbat tokitan une oro ezarrita egongo diren bilketa pneumatikoko sistemaren buzoietan, lurpeko edukiontzi komunetan eta atzeko edo alboko karga dutenetan utziko dira. Zatiki horretarako ezarritako edukiontziak edo bilketa lekuak hobeto identifikatu ahal izateko, kolore grisa ezartzen da etorkizunean edukiontzi eta buzoiak berritzean zabalduko den erreferentziazko kolore gisa.

*34. artikulua. Aurreragoko aldaketak edukiontzi motetan.*

Udalak, edo toki erakunde eskumendunak, hondakin mota bakoitza uzteko beste edukiontzi edo ontzi normalizatu bat erabiltzea erabakiko balu, hala egingo da Ordenantza hau aldatu ondoren, bilketa zerbitzuak ahalik eta baldintzarik egokienean egin daitezen, hondakinen izaeraren, sektorearen ezaugarrien edo hura dagoen herri bidearen arabera, eta hura biltzeko eta garraiatzeko egindako plangintzaren arabera.

*Artículo 27. Contenedor/buzón de vidrio (contenedor verde o de distintivo verde).*

El contenedor o buzón de distintivo verde queda reservado exclusivamente para el depósito de los envases de vidrio, quedando exceptuado el vidrio plano, como espejos, platos y similares.

*Artículo 28. Contenedor/buzón de envases (contenedor amarillo o de distintivo amarillo).*

El contenedor o buzón de distintivo amarillo queda reservado exclusivamente para el depósito de envases de plástico, metálicos y brick. Quedan exceptuados otros elementos como pueden ser aerosoles, juguetes, pequeños electrodomésticos, biberones, guantes de goma, peines, cepillos de dientes, cazuelas, sartenes y demás utensilios de menaje, y en general otros elementos similares que se puedan determinar por analogía a dichos supuestos excluidos.

*Artículo 29. Contenedor/buzón de biorresiduos (contenedor marrón o de distintivo marrón).*

El contenedor o buzón de distintivo marrón queda reservado exclusivamente para el depósito de la materia orgánica biodegradable, sea ésta de origen vegetal o animal, esté cocinada o no. Los contenedores serán cerrados y su apertura se realizará mediante tarjeta con chip o mecanismo equivalente. Todos o parte de los mismos serán contenedores adaptados.

*Artículo 30. Contenedor de aceite (contenedor naranja o de distintivo naranja).*

El contenedor naranja queda reservado para el depósito del aceite doméstico comestible y usado, que será depositado por las personas usuarias en envases cerrados y excluirá en todo caso aceites de automoción o de origen industrial.

*Artículo 31. Contenedor de ropa (contenedor blanco o de distintivo blanco).*

El contenedor blanco queda reservado para el depósito de textiles y ropas y calzado usados de origen domiciliario.

*Artículo 32. Contenedor de pilas (contenedor pequeño amarillo).*

El contenedor específico de pequeño tamaño y de color amarillo queda reservado exclusivamente para el depósito de pilas de botón y convencionales.

*Artículo 33. Contenedores/buzones de residuos restantes para la recogida no selectiva.*

Los restantes residuos urbanos no excluidos de la prestación del servicio por el artículo 56 de esta Ordenanza, se depositarán en los buzones del sistema de recogida neumática, los contenedores comunes soterrados y en los de carga trasera o lateral instalados en cada momento en los diferentes lugares de la ciudad. En aras a una mejor identificación de los contenedores o lugares de depósito establecidos para dicha fracción se establece el color gris como color de referencia a extenderse e implantarse paulatinamente en futuras renovaciones de contenedores y buzones.

*Artículo 34. Variaciones posteriores en el tipo de contenedores.*

Si el Ayuntamiento, o la entidad local competente, decidiese la utilización de otro tipo de contenedores o recipientes normalizados para el depósito de cada uno de los tipos de residuos, se efectuará, previa reforma de la presente Ordenanza, con el fin de que los servicios de recogida se realicen en las mejores condiciones, de acuerdo con la naturaleza de los residuos, las características del sector o de la vía pública en la que se ubique, y la planificación realizada para su recogida y transporte.

EK\CV GAO-I-2015-05031

II. KAPITULUA. EDUKIONTZIEN ETA HONDAKINAK UZTEKO GAINERAKO LEKUEN ARAUBIDEA

*35. artikulua. Edukiontziak ezartzea eta bitarteko lagungarrien beharra.*

1. Udalak edo toki erakunde eskumendunak ezarriko du edukiontzien eredu zehatza, gune bakoitzean erabili beharreko ale kopurua eta haien kokapena.

